



2025SECG0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 02/2025
EGUNA: 2025/02/27
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: 17:35
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Bertaratzea desenkusatzeko du:

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu zen 2025eko urtarrilaren 30ean eginiko bileraren akta, Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2025eko urtarrilaren 30ean eginiko bileraren akta.

2.- Urtarrileko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.

Alkateak azaldu zituen Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

1. Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Puntu honetan gogorarazi zuen urtarrileko Osoko Bilkuraren bileran, aurreko bileraren akta onartzeko puntuan, Gilen Garciak Foru Funtsari zegokion zenbatekoaren harira zalantza bat azaldu zuela, eta berak agindu ziola ahalik eta lasterren argituko ziola. Horiek horrela otsailaren 10ean emailen bidez erantzun ziola, eta 2024ko abenduaren 19an eginiko bileran aipatu ziren 5.401.649 euro horiek transferentzia arrunta guztiei dagokien zenbatekoa zela, eta horietatik, 4.879.233 euro Foru Funtsari. Mezuan, 2025etarako aurrekontuan jasota transferentzia arrunten taula gehitu ziola, hain zuen, taula hau:

Partida	Zenbatekoa
KONTZERTATU GABEKO ZERGETAN PARTAIDETZA	6.429
EUSKO JAURLARITZA: BAKE EPAITEGIA	4.100
EUSKO JAURLARITZA: GIZARTE-LARRIALDIA	45.000

TURISMO BULEGORAKO DIRULAGUNTZA	18.400
ARTE ESZENIKOEN SUSTAPENA	5.900
EUSKO JAURLARITZA: GIZARTEKINTZA	48.000
EUSKO JAURLARITZA: ONDAREAREN BABESA	30.500
GENERO INDARKERIA. DIRULAGUNTZA	1.600
HIRIGUNE. KOMERTZIOA DINAMIZATZEKO PLANA	3.000
ALDAKETA KLIMATIKOA. DIRULAGUNTZA	12.000
OSAKIDETZA. DIRULAGUNTZA	7.500
LIBURUTEGIA. EUSKO JAURLARITZA	4.100
KONTZERTATUTAKO ZERGETAN PARTAIDETZA	4.879.233
UDAKO KONTZERTUETARAKO DIRULAGUNTZA	3.500
ZAINTZA SAREA. DIRULAGUNTZA	92.000
KIROL JARDUETARAKO DIRULAGUNTZA	3.000
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA	4.250
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUARENTZAKO DIRULAGUNTZA	28.020
EGUNeko ZENTRORAKO DIRULAGUNTZA	180.972
HONDARTZAKO SOROSPENERAKO DIRULAGUNTZA	11.000
GAZTELEKUKO DIRULAGUNTZAK	4.145
AMIANTOAREN ERROLDA. DIRULAGUNTZA	9.000
Guztira	5.401.649

2. Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak dekretu garrantzitsuenak azpimarratu zituen.

3. Jon Ander Urainek EH Bildu udal taldeko zinegotziaren kargu hartzea.

Tramite guztiak bete ondoren, Jon Ander Urainek gaurko Osoko Bilkuran, zin edo promesa egin ondoren kargua hartuko duela.

4. Onartzea, hala badagokio, Debegesa eta Debako Udalaren arteko lankidetzak-hitzarmenaren 2. gehigarria, Debako udalerrian «Pasealeku Estalia balioan jartzea tokiko produktu-merkatu gisa» proiektua gauzatzeko, Euskal Kostaldeko Unesco Geoparkearen helmugan jasagarritasun turistikoko planaren esparruan.

Proiektu horrek Next Funtsetako dirulaguntza jaso zuela eta Debegesak zuela proiektua kudeatzeko ardura, baina Udalak Ondare Departamentutik beste dirulaguntza bat lortu duela egin behar dena osatzeko, eta horregatik, beharrezkoa zela proiektu osoa Udalak kudeatzea eta sortuko diren faktura guztiak Udalaren izenean egotea. Horretarako, sinatutako hitzarmenaren gehigarri bat sinatu behar zela Debegesak hartutako ardura Udalari pasatzeko.

Idazkariak gehigarrian eginiko azken orduko bi aldaketen berri eman zituen.

5. Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 1. kreditu aldaketa.

6. Onartzea, hala badagokio, Itziariko Auzo Udaleko 1.kreditu aldaketa.

Alkateak bi kreditu horiek eragindako partiden berri eman zituen.

7. Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala.

Alkateak adierazpenaren negozioan izandako gorabeheren berri eman zituen.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.



2025SECG0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

3. Eskari eta galderak.

Alkateak azaldu zuen jaietan jartzen diren barraken jabeekin aurreko astean egindako bileraren ondoren horiek aurkeztutako proposamenaren berri eman zuen.

Halaber, behin aztertuta, alde batetik, Udalak barrakak jartzeko izaten ohi dituen gastuak (Karabanak jartzeko ETSko partzelaren alokairua, Udaltzainen lan orduak, eta abar), eta, bestetik, barraketatik lortu ditzaketen etekinen estimazioa aintzat hartuta, emango zaien erantzunaren proposamenaren berri eman zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:35ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Allika
Alkatea

